

LOVE STORY

Where do I begin to tell the story
of how great a love can be
the sweet love story
that is older than the sea...
Where do I start?... (Carl Sigman)

Hemen, bakarrik, pareta txuri hotz hauen erdian, gustu txarrez dekoratutako atakan nago. Ni eta nire zoritxarreko patua. Zigarroa eskui-nean, kea behatzen zirrikituetatik ihesi doa, nikotinaren kiratsa nire hatzetara jaurtikiz. Leku nazkagarri baina eroso honetan iragaten ditut segundu, ordu, egunak... pentsatzen, gogoratzten, pairatzen... Benetan, where do I start?

1990. San Marciales de Irun, Jarrai KASen pintadaren ondoan kartel berri bat dago. Tabernako giltza zaharra galtzetatik atera eta zulo kirasdun hartan murgiltzen naiz interruptorearen bila. Interruptore zahar hori, auskalo non dagoen. Zer arraio duk hau? Taberna guztia denborak eragindako armiarmaz josirik... Hemen zegok. Bapatean, sapatik zintzilikatutako bonbila zahar bat pizten da, argi izpi unatuaren iturri.

Zigarroa kontsumitzen doa, denbora motza egiten zait, kea pareta zeharkatu nahiean dabil. Zoruan, aldiz, hor dago marrazki geometrikorik egiten ez duen tabako hautsa.

Gaueko bederatziak. Taberna ireki dugu. Jendetza izugarria bildu da gaur Moskun—auskalo zergatik deitzen zaion halakorik Irungo Urdanibia plazari— festak direla eta. Ate inguruan Hondarribiko arrantzale presuak daude sagardo botilarekin.

—Una botella de agua, txanpain botilaren ipurdiaren antzeko betaurrekoak dituen mutil batek esan didala iruditu zait. Haren ondoan beste gazte altu bat dago, Levisen iragarkieta-ko mutil liraina.

—¿Qué quieres?

—Una botella de agua.

¿Y tú?, ondoko mutilaren begirada erakarri nahiean.

—Yo nada, y no soy tú. En el papel del bautizo pone Xabi.

Hura izan zen nire etorkizunaren xakematea.

—Nora goaz?, tabernatik atera nauen nire lagunari.

—Lagun bat aurkeztu nahi dizut.

Tabernaren aurrean dago eta bizkarra besterik ikus ez badiezaioket ere, ongi landutako gorputzaren planta egiten du.

—Xabi, ésta es Kiriki. Konturatu orduko, Levis iragarkietako mutila dela ikusi dut. Gau osoan hitz egiten jardun dugu eta berarekin ateratzeko eskatu dit. Baietz esan diot.

Kilometroak 92-ko txiskeroa. Deszifra ezin dezakedan marrazkiari begira, beste Lucky bat pizten dut. Lehenengo kalado honek birikak astindu balizkit bezala sentidu dut. Txakurren antzera ez tul bukaezin batetan murgildu naiz eta hautsontzia lurrera joan zait. Ze arraio!, honek dekorazioari falta zaion pintzelada eman dio.

Luzaro daramagu elkarrekin. Inorekin atera naizen niak ezin du sinetsi. Ametsa ote? Laztantz nauen bakoitzean nire gorputza, lepoa, haragia, giharreak, atomorik txikienak ere mugimenduan jartzen ditu. Bere elektroien orbitan jarri naiz biraka eta biraka.

Gaztea, bizitza guztia aurretik... Dena pikutara!!! Baietz hura ezetz bihurtu izan arren egingo nukeen guztia!

Bere etxeko igongailuan gaude biok. Toki itxi kirasdun eta hezea. Sabaian NO A LOS DROGADICTOS QUE TRAEN EL SIDA hizki kurbatu akasgabez idatzirik dago errotilagailu gorri batez. Bigarren solairua. Tin! Atea irekitzen den bitartean, belarrira hitzegin dit, isiltasunak entzungo gaituen kezkan.

—Ez zegon inor nire etxean, irribarre kezka-ti batez entzun diot.

Bere gelara joan gara musika entzutera. Gure abesti gogokoena jarri du, **NEGU GORRIAK**en *maite zaitut*. Musuka hasi gara, baina ez dira ohizko musu inuzenteak, zerbaiten beharra sentitzen duten musu traidoreak baizik. Klik, klik, klik abestia bukatu da. Ez diogu jaramonik egin, urrutiko oihartzuna balitz bezala. Gurean jarraitu dugu, ohe gainean etzan arte. Geldirik nago, bisuts aurreko espazio bare nire gorputza. Badirudi betidanik zerbaiten esperoan egon naizela, definigaitza, baina berak eman diezadakeena.

Bere begiekin barruraino uki nazake, adieraz eziniko bere eskuen jolas zoragarria, bere ahoa, mihia... gehiago behar dut. Zaporea dastatzen eman didan arte ez naiz konturatu zein gosebera nintzen. Gure mihiak loturik gelditu dira biraka eta biraka.

Belarrian kosk egin dit eta bere esku haundi sentikorrak nire gorputza aztertzen doaz, goitik behera, amoltsuki. Begiak itxi ditut sentsazio honi sokak aske uzteko. Konturatu naiz, dagoeneko nire blusa goitik behera aske dagoela, baita didizorroa ere. Bere mihia lepotik irristatuz doa..., aho bustiak ditia aurkitu duen arte. Perfekziozko zirkuluak egiten doa, gero eta hezeagoak nire galtzazpiak... Nire arnasa tartekatua gelaren paretetan isladatzen da erritmo bizkorrean.

Sabela, aldaka, hankak... izterren barrukaldea miatzen hasi da eta beste eskuarekin botoiak askatzen. Nire bernetan labaindu ahal izan dadin uztatu egin naiz eta berak... Hau amodioaren betetasuna! Xabi, Xabi, behar zaitut!

.....

Euria ari du; ni, berriz, eserita nago, bizitza aztertzen. Jendea gosez, gudak... eta gogoan ditut egun zoragarri haiek.

Kiriki, zatoz. Izkinaren azken mahaian dago Miguel besteekin. Miguel 21 urteko mutil base-ritarrak kontatzen hasitako historia jarraitzen saiatzen naiz. Ze arraio, ilea moztu behar nuela eta lehenengo aldiz bizartegi batetara joan nintzen. Hara non ilegarbitzaileak bi emaku-

me ziren. “Pasate a lavar” esan eta hor joan nintzen guztiz konbentziturik. Burua katxarro zahar hartan jarri eta emakume batek: “Oye, si quieres ir a confesarte, te has confundido”. Ez nion ezer ulertu eta haserretuta etxera joan nintzen. Amari jaulki eta barrez hasi zen, ilea-paindegian ez baitute amatxito ni lababoan bezala garbitzen. Hau lotsa!

.....

Luckya azkenetan dago. Bizi nahi balu bezala bere hilzoriko arnasa ahulak kea zuzenki gorantz jaurtikitzen du. Putz egin eta ke segaila bihurtunetsu bilakatu dut. Burua paretaren kontra, pasilua inoiz ikusi ez dudana perspektiba batetara dago. Pentsamendu honetan murgildurik bi hitz atera dira nire ezpain hezeetatik. Maite zaitut. Bai! Where do I begin to tell the story...? Baina historia aurreratuta dago jadanik.



Bidegorri, Rekondo lantegiaren aurrean gelditu gara. Erreka errugabe honek daraman zabor guztien artean, arrain koloredun bat dabil tripaz gora, bere bizitzaren azken bagoiari eutsi nahian. Hamar minutu berandu etorri da gaur. Ez dakit zer duen baina zerbait gertatzen denaren susmoa daukat.

.....

—Kiriki, hitzegin beharra dugu.
—Zer jazo da?



Hainbeste aldiz irakurritako egunkariari begira nago. Irailak 28ko egunkaria nire bizitzan goitik behera irakurri dudan egunkari bakarra dela iruditzen zait. Zirriborrotuak ikusten ditut hitzak, malkotan nire begiak... Ahoan listuarekin nahasturiko gatz zaporea irensten saiatzen naiz. Tipografoentzako HIESaren biktima guztiek berdinak dirudite. Eta ospitalean emandako azken orduak gogoratzen ditut batez ere.

.....

Ez dirudi medikuak albiste onik duenik. “Ya sé que es muy difícil de afrontar, es una situación muy complicada, pero hay centros en los que se consigue ayudar a los enfermos”. Ez dut gehiago entzun nahi. Kontsultako atea ireki eta pasiloan zehar noa begiak lausoturik, malakoak kanporatu nahiean.

Kaleko iluntasunak irentsi nau. Behin eta berriro itzuli ditut begiak ospitaleko bere gelara. Gero eta urrutiagoa argia, gero eta kaxkarragoa gau oskarbian. Adurraren izar guztien iseka. ...with the first hallo, you gave a meaning to this empty world of mine... Negar zotinak ito zidan maitasun istorio posiblearen doinua. ■

